



Irailaren 16tik 22ra

**EUROPAKO MUGIKORTASUN
IRAUNKORRAREN ASTEA**

Legazpiko Udalak Mugikortasunaren Europako Astearen alde egin du eta horrela adierazi du sinatu berri duen Atxikitzegutunean. Honako hau da aurtengo lema: **“AIRE GARBIA DENONTZAT”**. Horrekin toki batetik bestera joateko erabiltzen ditugun garraioez hausnarketa egitea bultzatu nahi da.

Europako beste hiri eta udalerritan egin den bezalaxe, hainbat ekintza antolatu dira gure herriko bizilagunak leku batetik bestera joateko dauden beste aukerak erabiltzeko beharraren gainean sentsibilizatzeko (oinez, bizikletaz, autobusez, trenez...) eta abantailak ezagut ditzaten (kutsadura eta zarata gutxiago, kaleen okupazio gutxiago, elkarren arteko harreman handiagoa...)

LEGAZPIN EGINO DIREN EKINTZAK

EGUNA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA
16tik aurrera		Web orriak: www.legazpiko-udala.info www.uggasa.com	<u>WEB GUNE BIDEZ MUGIKORTASUNAREN GAINEKO INFORMAZIOA AURKEZTU.</u> Mugikortasun iraunkorraren dekalogoia ezagutzeko eta galdetegi bat betetzeko aukera izango dute herritarrek. Galdetegia betez gero 4 bizikleta tolesgarrien zozketa batean hartuko dute parte. -UGGASArekin batera antolatutako ekintza-
18	17:00-21:00	Euskal Herria Plaza	<u>INFORMAZIO PUNTUA ETA KALE ANIMATZAILEAK.</u> Informazio puntu honetan “mugikortasun iraunkorraren dekalogoia” aurkeztuko da, eta herritarren proposamenak, eskaerak, zalantzak, iradokizunak... jasotzeko aukera zabalduko da. Bizikleta martxa ondoren, mugikortasun iraunkorra bultzatzeko mezuak zabalduko dituzte kale animatzaileak. -UGGASArekin batera antolatutako ekintza-
18	18:30	Goierrri taberna (Urtatza) - Arantzazu - San Ignazio (Muru) - Juanastegi - Aiztonaga - Aizkorri kalea - Nagusia - Plazaola - Euskalerrria plaza. Gazteenak eta beranduago iristen direnak, Aizkorri kaletik plazara zuzenean joango dira.	<u>BIZIKLETA IBILALDIA.</u> Laguntzaileak: Korosti Txango Elkartea eta Telleriarteko Txirringulari Elkartea. Kontuan izan: <ul style="list-style-type: none"> • Ibilaldia ez da lasterketa bat, gure herrian bizikleta erabiltzeko errebindikazio-ekintza baizik. Hori dela eta, abiadura orduko 20 kilometrorra mugatu dugu. • Derrigorrezkoa da kaskoa eramatea !!!! Bukaeran: ogitartekoak eta fruta banatuko dira. -UGGASArekin batera antolatutako ekintza-
19	20:00	Legazpiko udaletxea	<u>SARI BANAKETA (6 bizikleta)</u> Ekitaldi honekin amaiera emango zaio Iinti elkarteak eta Legazpiko Udalak elkarrekin egin duten <i>“Plastikozko poltsarik EZ. Zeurea erabili”</i> kanpainari.